

Joko honetan, ikasleak alegiazko testuinguru batean kokatuko ditugu. Horretarako hau erranen diegu:

"Demagun zuen itsasontzia urperatu dela. Indar handirekin, itsas zabalean dagoen uharte batera heltzea kausitzen duzue.

Ez dakizue non zaudeten. Dakizuen gauza bakarra hau da: norbait heldu arte uharte horretan bizi beharko duzuela.



Uharte horretan egunez 30° egiten ditu eta gauez 20°. Beraz, tenperatura nahiko atsegina da. Irla horretan dauden pertsona bakarrak zarete. Animalia eta landare basak egon daitezke irlaren iparraldeko oihanean. Gainera, arrainez betea den laku bat dago hegoaldean.

Parada izanez geroz, zein hiru objektu eramango zenituzkete irla desertu hartara?"

Beraz, itsasoan galdu denaren rolan jarri beharko dira eta hiru objektu horiek zein izango liratekeen adostu beharko dute.

Objektuen zerrenda:	
1- Sokorri kutxa	12- Suzirien aurtitzeko pistola
2- Ur edangarria	13- Ezpata bat
3- Camping oihal-etxola	14- Soka luze bat
4- Pistoleta bat	15- Eguzkitako krema
5- Janaria	16- Txankletak (tongak)
6- Iparrorratza	17- Bainujantzia
7- Argazki tresna	18- Labana edo ganibeta
8- Irratia	19- Komuneko papera
9- Eltxoen kontrako spraya	20- Arropa garbia
10- Briketa	21- Paraxuta
11- Supizteko kutxa	22- Lapiko bat (tupina)